

Idoia Garzesek irabazi dau barrero Dimako Kalenturak Lehiaketea

12. orrialdea

Igorreko Ziklo-krosa abenduaren 11n

Probak goizeko 09:00etan hasiko dira eta Masterrak izango dira parte hartzean lehenak. 11:00etan Kadeteak, mutilak eta neskek eta 10:45ean Gazteak (mutilak). Sari banaketaren ondoren proba nagusiak etorriko dira. 11:45ean, andrazkoena, Gazteak, Sub 23 eta Elite, eta 12:45ean gizonak, Sub 23 eta Elite. **11. orrialdea**



Alex Txikon, Simone Moro eta Ali Sapdara Igorreko Kultur Etxean

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

263

2016ko abenduaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Euskal estadu burujabe bateko herritarrak izan gura dabe Diman

Zemendiaren 27an, 16 urtetik gorako dimoztarren % 63,42k erabakitze eskubidearen alde egin eben Alkarregaz Gure Esku Dago alkarteak antolatutako herri galdeketa parte hartuz. Itauna, "Euskal estadu burujabe bateko herritarra izan gura dozu?" izan zan eta % 95,3k baietz erantzun eban.

Gure Esku Dago-koentzat inportanteena herri-tarren parte hartzea eta erabakitze eskubidea gauzatzea da emoitzea edozein izanda be, baina, % 95ak baietz erantzuteak bazartu ezinoko datua dirudi.

Parte hartze aldetik arrakasta handia izan eben

botazinoak berak zein botazinoaren inguruan antolatutako guztiak. Ehun personatik gora ibili ziran prestaketa lanetan eta Arratiako beste herrietatik be jente asko hurreratu zan.

Herri galdeketearen lekukoa Zeanuriri pasau eutsan Dimak. **5. orrialdea**



763 lagunek hartu eben parte Gure Esku Dagoren Dimako galdeketa. Argazkia: Oriol Fernández Martí.

ARRATIA

Igorreko lan bik irabazi dabe Beldur Barik Arratia Lehiaketea 2016

Askatu sokak, 12 eta 17 urte bitarteko kategorian, eta Sagarra manzana 18 eta 26 urtekoan, irabazi dabe 2016ko Beldur Barik Arratia Lehiaketea. Guztira 9 lan aurkeztu dira, 7 lehenengo kategorian eta 2 bigarrenen.

Sari banaketa ekitaldia zemendiaren 25ean izan zan, Andren Kontrako Indarkeria Ezabatze Nazinoarteko Egunean Dimako Gaztetxean. Bertan, indarkeria matxistea prebeniduteko ekimen honetan parte hartu daben Arratiako gazteak batu ziran. Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea eta Dimako alkatea be egon ziran bertan. **7. orrialdea**

ARRATIA

Abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Eguna

Abenduaren 3an Euskerearen Nazinoarteko Eguna da. Egun horretan instituzinoak eta euskalgintzak herritarri proposatzen deutsee euren buruai itauntzeko zer egin daikien euskerearen alde. Arratian, hausnarketa horretan lagunduko daben hainbat ekimen egongo dira Euskerearen Egunaren inguruan.

Diman maiatzean Ueman sartu izana ospatuko dabe Udime eguna deitu izan dabena-gaz. Ueman beste udalakaz batera "hizkuntza politika aurrekoiak" bultzatzen ditue. Artea eta Areatza be Ueman dagoz. Igorren euskerearen arnaguneen gaineko tailerra egingo dabe.

Euskerearen erabilera bultzatzeko behar in-

portantea egiten dabe Berbalagunak eta Igorren omenalditxoa egingo jakie. Lemoan be protagonismoa eukiko dabe, koloretsua eta bizipen positiboz beteta izan gura dauan jaialdian.

Antzerkia, kontzertuak eta herritarrak protagonista diran hamaika ekitaldi egongo dira egunotan. **8. eta 9. orrialdeak**

ZAZPI HAIZETARA

GABON ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEGUZ!

ELIKADURAN BE BURUJABEAK!

Euskal Ekoizleen Aldeko Ekimena

Agirre Lehendakaria 11

Gabon zoriontsuak opa deusueguz arratiaz guztiok!

LAN BERTIKALAK

SOKA

SOKA

T.: 946 036 069

soka@sokavertikal.com
sokavertikal.com

ZEURE BERBEA

Zorionak eta eskerrik asko Dimako herriari

Lehenaldiz Diman herri konsulta bat gauzatzea lortu dogu. Zorionak guztioi! Galdeketa egitea helburu bat, helburu handi bat, izan da. Ez da erreza izan baina lortu dogu egitea! Jai giroan ospatu dogu eguna, jai giroan baita be arinago egin doguzan ekintzak, hori gura genduan eta ez elango arazo barik, gura izan dauanak parte hartzeako aukerea izan dau beti.

Eskerrak emon gura deutseguz lehenik, heritar guztioi, entzun gaituzuelako, prozesu osoan zehar gure ondoan sentidu zaituegulako, botoa emotera etori zarielako. Batez be sarete sistematan, herri sarean egon zarien guztioi, asko izan zarie, izan gara, ilusinoa eta emozinoa ipini dozuenok eta dogunok. Ezin dogu ahiztu Dimako Udala. Gure ondoan egon zarie beti! Alkarregaz-ek aurkeztu eban mozinoa aho batez onartu ebalako, plenoko aktaren bidez historiara pasauko dan aldamikapena izango dalako. Eskertu udaleko kide guztioi, alkate, zinegotzi eta teknikariok, guranako izan dozuen begiruneagaitik, denpora guztian sentidu dogu zuen babes! Eta zelan ez, eskerrak gura doguz emon, gure ondoan laguntzen edo laguntzeko prest egon zarien guztioi, aditu, enpresa, alkarte, kuadrila, artista eta norbanako guztioi. Ondotxo dakizue holango prozesu bat, herri konsulta bat, ezin dala jente askoren laguntza barik egin.

Prozesua bera parte hartzailea,

anitz, serioa, aberatsa, gardena eta irekia izan da. Errespetu eta desbardintasunetik abiatuz, balore demokratikoetan, herriagazko loturea izan dau. Hau be helburu genduan eta nota onagaz igaro dogula uste dogu. Egingdako ekintzak asko eta parte hartze handikoak izan dira: 180 lagun ekimenaren aurkezpenean, 450 persona giza katean, 610 atxikimendu eta 400 herritar San Mamesen, 360 sinadura galdeketeari zilegitasuna emoteko, 250 persona zinegotziak egindako agerraldi instituzionalean, beste 440 lagun Ibarretxe lehendakaria eta Jaume Lopez-en berbaldian... eta zelan ez, galdeketa egunean be, zemendiarren 27an, 765 dimoztarrek gauzatu eben euren erabakiteko eskubidea. Horreetatik 729 herritarrek euskal estatu burujabe baten alde bozkatu eben, kontra 10ek. Pozik gagoz emotzakaz, danon artean lortu doguzalako.

Eta bat amaitu da Diman baina gauza asko dagoz egiteko. Gure herrian izan dogun esperientzia Arratiako eta Euskal Herriko taldeakaz partekatze prest gagoz eta Gure Esku Dagoen dinamika nazionala bultzatzen jarraitzeko borondatea agertzen dogu. Eta bat amaitu dogun arren, bide luzea dago oindino egiteko, badakigu ondotox be! Baina danok batera egingen joango gara, ez daukagu dudarik.

Protagonistak izanik, gure bitartez sortutako tresnak eta lortutako espazioa, dimoztar guztientzako zabalik ixten dogu, demokrazia hobeago bat, parte hartzaileago bat eregiten jarraituteko. Hori da gure ilusinoa eta itxaropena, zuon eta guztion esku dago lortzea. Izan gaitezcan eredu!

DIMAKO ALKARREGAZ GURE ESKU DAGO

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerok, BEGIRUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

ERETXIA

Gorbeialdeko euskerearen transmisinoaz

Euskerearen transmisinoak, hiru ardatz nagusiren inguruan daragoio belaunaldiz belaunaldi, transmisino ohiturari, denporari eta lekuari deusala. Ardatzok geroago eta mobikorrako agertzen jakuz munduko teknologia sofistkaduen abiadurearen ondorioz. Halanda be, transmisino posible da borondatea eta bitarteko egokiak ipini ezkerok. Gure aurrekoak kapaz izan badira gu zergaitik ez? Gure geure esku dago mihin bako arrana ugerrak jan ez egitea.

Gai garrantzitsu hau bideratzeko, besteak beste, gure aurretik joandako gizon eredu garri biren esaeretara jo gura neunke.

Alde batetik, On Jose Migel Barandiaraneri entzunda deukotsat hau esaldi hau: "Izan ziralako gara eta bagaralako izango dira". Bestetik, Jorge Oteizari irakurrita hau beste hau: "Etorkizuna jatorrian dago".

Era batera edo bestera, biak ibili jakuzan Euskal Herriaren zuztarretarik harako ondarea jaso eta aztertzen.

Euskaldunon ondarea jaso, aztertu, egokitu, garaian garaiko egin eta etorkizunera bideratzea danon eginbeharra da euskerea jakin zein jakin ez.

Euskal ondarea osotasunean hartu behar da eta ondare horren espilu euskal hizkuntza da bere zabaltasun osoan, baserri baztertuenetik hasi eta eraikuntza modernoenera bitartean.

Urteak ezeze, mendeak be joan doaz gure euskerearen bizitza luzean eta hemen gagoz biziak bizilanean euskereari eusten.

Gure historia luzean zehar, askok eta askok egin eta egingo deusagu itaun hau geure buruari: "Herri zahar eta txiki honen hizkuntzak, hau da euskereak, zelan daragoion baino ez da bizirik gaur egun European eta Munduan?"

Gaur egun be itaun hau buru-



JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA
Euskal Filologian Doktorea

zuhur geureari eusteko, batez be geure hizkuntzeari, euskal kultura orokorraren barruan. Orain arte be, euskaldun egin eta egiten gaituena dogu nortasun oinarri, geroan be beste hainbeste. Baina hori gure geure esku dago, euskaldun izan eta euskeraz bizi bagara. "Denporeak agertuko deusku edurra mendian".

Euskal trasmisinoaren ondarea orokorrean hartuta, euskera idatzia eta ahozkoaren artean ez dago orekarik. Euskera idatziaren munduan behar asko egin da eta oso ona. Gainera, gaurko medio elektronikoko bidez esku eskura daukagu egin eta egiten gabiltzan guztia.

Baina, ahozko euskeran zer? Bai, egia da, asko egin da baina nire ustez, belarrietatik barik begietatik ez ete gabiltz bideratzen etorkizuneko euskerea?

Mikel Zarateren "Idatz eta Mintz" alegia ospetsua jatorta gogora. Idatz, lantzen gabiltz baina zenbateraino Mintz? Gaurko Berridatz horrek ez ete deusku Bermintz sortu? Non dago ahozko trasmisino? Zer egin behar litzake euskereak bizirik irauteko? Zer ete da hobe, hainbesteko informazio idatzia ala biziteko laineko ahozko erabilera gaurkotua?

Ahozko transmisino bide hori eten egin da neurri handi baten, batez be gizartea aldaketa saketan murgildu danetik. Eta gizartean gertatu diran aldaketa saketan artean, transmisino bideak eurak aldatu dira batez be. Lehen etxean gurasoengandik ikasten ziranak gaur eskolan irakasten dira, eta familiak beteten eban sozializazio funtzinoa gaur eskolak beteten dau. Hedabideen eragina be hor sartu geinke, ikusentzunezkoak, papelezkoak zein digitalak bitarteko.

Gorbeialdean oraindino bizirik daukagu herri-euskerea. Jagon daigun altxor hori eta ahoz zein idatziz bideratu etorkizunera. Hala biz!

Itsasoan handi ura basoan ugari zura, euskaldun izan, euskeraz bizi zainduaz euskal kultura.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Jausi



Edozein gauza, bere pisuaren eraginaz beherantza doanean jausi egin dala esaten dogu. Uleari be bardin pasetan jako. Jausi (yáusi, agoskatuta) euskera batuan, erori esaten da. "Tranpetan jausi" edo "guzurretan jausi" lokuzinoak, iruzurren bat edo egiten harrapau diran lagunakaz erabilten dira. Jausi berbeak, adjetibo moduan erabilia (yausie, agoskatuta), zera adierazoten deusku: personearen itxura fisiko motela edo triste; esate baterako: "Begi jausiak daukozuz; hori nekeori ez dozu kenduko behingon!!".

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Euskal Batzua

MONDRAGON 2016

LUMATUTEN



IRATXE ETXEBARRIA

Trump

AEBetako hauteskunde sistemeak erakutsi dau edozein izan daitekela presidente. Harrigarria egin jata Donald Trump-ek irabaztea. Ez bakarrik hauteskunde kanpainan zehar mespretxuz egin daualako andren kontra berba, edo irain sexista, homofobo eta errazistak ez diralako bere hitzaldietan falta izan. AEBetako telebista kate eta egunkari guztien artean bakarra izan dau alde: eskuin muturreko Fox News telebista katea. Bueno, Ku Kux Klan-en aldizkaria be bai. Eta hori baino gehiago, ustez berak ordezkaten dauan Alderdi Errepublikarra be kontra izan dau. Gogoratu, garagarrian, errepublikarrak hauteskundee-tarako euren hautagaia aukeratzeko egindako konbenzinoan, azken ordura arteko ahalegina egin ebela Trump ez zan beste hautagairen bat adosteko. Baina ez eben lortu.

Eta Trump-ek Etxe Zurirako bidea, bakarrik egin dauala esan daiteke. Reality bateri esker, he-

rritarren artean oso ezaguna dan negozio gizona AEBetako gizon zuri langileen babesak egingo dau 45. presidente. Sindikalismoak pisu handia eban estaduetan be berak irabazi ditu hauteskundeak. Lehman Brothers-ek porrot egin ebanetik, krisiaren ondorioak ondoen ezagutu dituen erdi mailako familiak sinetsita dagoz euren lantegien itxieraren ostean *stablishment*-a dagoala. Eta sistema tradizionalaren ordezkaria, Hillary Clinton hautagai demokrata izan da. Euren haserrea erakusteko modua izan da beraz, askorentzat, Trump-en alde bozkatzea.

AEBetan gertatu da zemendian, baina bagilan Erresuma Batuan gertatu zan. Sistemearen kontra egiteko beharrak, Brexit-aren alde egitera eroan ebazan asko. Honek ekarriko dituan ondorioez hausnartu barik. Eta udabarrian Frantzia gertatuko da. Azken urteetako gainbehera sozial eta ekonomikoaren arduradun egiten ditue Holland-en sozialistak legez, Sarkozy-ren errepublikanoak be. Eta eskuin muturreko Marine Le Pen-ek Eliseora lehian aurrea hartu deutse.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Igorreko Mikele auzoan, Urkitze baserrian, behi pinta batek hiru txahal egin dauzala emon deusku jakitera Koldo Bilbaok. Txahal jaiobarrien argazkia be bialdu dau. Hor agertzen dira txahal jaiobarrak hiru umegaz olgetan.

Argazkian agertzen diran umeak pribilegiuak dira. Gitxi eukiko dabe aukerea benetako abere jaiobari bat ikutu eta usaintzeko, beragaz olgetako lasto artean. Heidi aspaldi hil zan. Ume askok abereku-meak sare sozialetan baino ez dabez ikusten.

Ez dakit txahalak hain pribilegiuak ete diran, jaiotzeko momentu latza pasau eta gero, olgetako gogo gitxi daukiela dirudi eta.

Baina Urkitze baserrian bai, zorionekoak dira. Abere baten jaiotzak beti ekarten dau poza eta hiru batera... poza ber hiru.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITuten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

DIMA

Deitutakoen % 63,42k emon eben botoa herri galdeketan

Diman, zemendiaren 26an, Alkarregaz Gure Esku Dagok antolatutako konsultan 765 lagunek, botoa emon eikien % 63,4k, erantzun eutsien "Euskal Estatu burujabe bateko herritar izan gura dozu?" itaunari. Horreetatik % 95,3k baiezkoa emon eben eta % 1,3k ezezkoa. Hogetabat boto zuri eta bost baliobako egon ziran.



Hainbat jente hurreratu zan Dimara inguruko herrietatik.

Argazkiak: Oriol Fernández Martí.

Erredakzioa

Alkarregaz Gure Esku Dago sano pozik agertu da jentearen parte hartzeagaz. "Beti gura izaten da partaidetzea % 100 izatea, baina emoitzak onak izan dira, egun oso polita, jentea pozik. Kanpotik be jente asko etorri zan" azaldu deutso BEGITURI Itziar Esparta Alkarregaz Gure Esko Dagoko ekintzaileak.

Nekane Intxaurtza Dimako alkatea be emoitzakaz harro agertu da. "Harro herritarrok galdeketa emondako erantzunagaitik, % 63,42ko partitzipazioa. Zelan ez pozarren 765 bototik 729k BAI erantzun dabelako eta EZ, ZURI NULO egon diranakaz be bai, botoa emoten joatea erabakitzeke eskubidearen alde dagozela erakusten daualako" azaldu deutso BEGITURI.

Jai giroa herrian

Egun osoan zehar, jentek jai giroan emon eban botoa. Inguruko herrietatik be etorri zan jentea galdeketeari babes emoteke. Areatza, Arantzazu eta Igorretik oinez hurreratu ziran hainbat. Ailegautakoan, Igitie Arratiako baserritar agroekologikoen azokea topau eben. Igitiekoen babes be euki eban galdeketeak eta. Gero, pailazoak, jantzak, jolasak, musikea... Bezperetan eta egu-

nean bertan 100 personatik gora egon ziran beharrean dana ondo urten eiten.

"Harro oso harro nago dimoztarroi Alkarregazek emon deuskun aukereagaitik. Eta klaro, Alkarregaz ez da abstrakto dan zeozer, Alkarregaz personak osatzen dabe, eurentzat nire esker beroena" dino alkateak.

"Tantaz tanta, herriz herri"

Ekitaldi nagusia 13:00etan izan zan. Hasikeran, egun horretan herri galdeketa egiten egozan herri bietan, Diman eta Bakaikun, adierazpen bateratua irakurri eben. "Bakaiku eta Dima datorren tsunamiko bi tanta dira; izan be tantaz tanta eta herriz herri irudikatuko dogu etorkizuna". Hurrengo "olatuan" Zeanuri

egongo da eta Dimak Zeanuriri pasau eutsan herri galdeketearen lekukoa.

Izan be, Dimako galdeketeagaz ez da amaitu Alkarregaz Gure Esku Dago dinamikearen beharra eta galdeketa egunaren bihar-munetik, aurrera begirako prozesuari ekin deusie. "Arratiako dinamikeagaz segiduko dogu. Espero dogu Arratiako jentek beste herriak be aktibetea eta herri guztietan egin dagiezala herri galdeketa" dino Esparzak.

Iluntzeko 20:30ak aldean, Gure Esku Dagok emoitzen barri emon eta herriari esker ona adierazo eutsan. "Hasikeratik azken egunera arte jentek asko inplikau eta lagundu egin dau. Hain emoitza onak be herritarren lanari esker lortu dira" dino Esparzak.



ARTEA

Arteko udaletxeak abenduaren 6an ateak zabalik eukiko ditu

Erredakzioa

Arteko udaletxea zabalik egongo da abenduaren 6an. "Konstituzinoak Euskal Herriaren izakerea eta existentzia bera ukatuten eta zapalduten dauanez, arrotza irudituten jakie arteaztarrai jai egun hau ospatutea". Holan adierazo dau Igor Etxaniz Arteko alkateak egun horretan udaletxea zabalik izateko ebatzia. Hori dala eta,

udaleko langile batzuk, zinegotziren batek eta alkateak berak lan egun normalizat hartuko dabe eguna.

Gainera, "jai egunaren izakera arrotza salatzeke", eguerdiko 12:00etan sarreran, Areatzatik Artearako noranzkoan, mural bat egiteko asmoa daukie, eta bertan parte hartzera konbidatuten dabez Arteko herriko eta inguruetako bizilagunak.

ZEANURI

Benito Lertxundiren kontzerturako eta pailazoen ikuskizunerako sarrerak salgai

Erredakzioa

Benito Lertxundik kontzertua eskeiniko dau abenduaren 30ean Zeanuriko frontoian. Sarrerak salgai dagoz hilaren 22ra arte. Areatzan, The Quiet Comer-en; Artean, Herriko Bentan; Igorren, Gau Lora tabernan; Dimako udaletxean; Ubideko Herriko Tabernan; Lemoako udaletxean eta Zeanuriri, Txoko Sagarman, Jubiladuen tabernan, frontoiko tabernan eta Batzokian erosi daitekez. Zeanuriko udaletxean be erosi daitekez hilaren 28ra arte, 08:30etik 14:30eko ordutegian.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Abenduaren 18an, barriz, Pirritx Porrotx eta Marimotots pailazoak



egongo dira frontoian. Sarrerak salgai egongo dira Zeanuriko udaletxean 17:00etatik 18:30era, abenduaren 1ean Zeanurikoentzat eta hurrengo egunean, abenduak 2, danantzat.

ARRATIA

**Film laburrak bialdu daitezkez
Laburbiran proiektetako****Erredakzioa**

Euskaltzaleen Topaguneak antolatutuen dauan 2017ko Laburbirako lanen aukeraketea egin aurretik, Topagunekoak abenduaren 16ra arteko epea zabaldu dabe, sortzaileak euskerazko film laburrak bidali ahal izateko. Jasotako lanen artean urtaillean aukeratu dira XIV. Laburbiran eskeiniko diran lanak.

Deialdi zabala egitea ebatzi dabe, film laburrak euskeraz egiten dituen guztiak izan dagien aukerea zirkuiturako euren lanak aurkezteko. Izan be, "zirkuituaren helburu nagusia horixe da sortzaileen lanak ezagutu arazotea, euskeraz ekoizten jarraitu dagien aukerea emonaz eta ikusleai geurean sortutako zineaz gozatu arazotea".

Topaguneak, euskerazko ikusentzunezkoen sortzailei bultzadea emoteko, beste hiru egitasmo be antolatzen ditu: Benito

Ansola Saria, Durangoko Azokako Irudienea gunea eta Kameratoia.

XIV. Laburbira martiaren 9tik aprilaren 12ra izango da. Igaz 27 herritan zehar ibili zan zirkuitua, zortzi film labor erakutsiz.

Filmak aurkezteko baldintzak
Lanak abenduaren 16ra arte aurkeztu ahal izango dira leire@topagunea.eus helbidera bidaliz.

Aurkeztu ahal izateko, filmak euskeraz egindakoak eta 2014tik hona ekoiztutakoak izan beharko dira. Sortzailearen datuak eta aurkezpen laburra (4-5 lerrotan bere ibilbidea), filmaren sinopsia, fitxa teknikoa eta filma bera, euskarri digitalean (mp4, mov...) bialdu behar dira.

Aurtengo Irudienean egongo diran film laburrak ez dira barriz aurkeztu beharko, zuzenean Laburbirarako aukeraketa fasean sartuko diralako.



ARRATIA

**Herritarren ekarpenak jasota,
aurrekontuetako zirriborroak
prestatzen dabiz hainbat herritan****Erredakzioa**

2017ko aurrekontuak egiteko herritarren ekarpenak jaso ditue modu desbardinetan gure eskualdeko udaletan. Auzo batzarretan, gai baten inguruko batzarretan, buzoietan eta inkesten bidez jasotako proposamenak, aztertzen dabilz udaletan aurrekontuetako zirriborroak egiteko. Izan be, urtea amaitu orduko au-

rekontuak onartutea da helburua.

Artean, Igorren, Diman eta Lemoan amaitu ditue auzo batzarrak.

Oraingo hilean zirriborroak aurkeztuko dabez Areatzan eta Artean. Areatzan abenduaren 1ean Batzar Orokorra egingo dabe eta 13an zirriborroen aurkezpena. Artean, hilaren 1ean Udal Batzordera eroango da aurrekontuen proposamena eta 13an plenoan bozkatuko da.

ARRATIA

**Kalifikazino energetikoa
agertu beharko da etxea
saldu edo alokatzeko****Erredakzioa**

Eraikinaren Ziurtagiri Energetikoa beharrezkoa da etxebizitza bat saldu edo alokairuan ipinteko. Eta 2017tik aurrera, iragarkietan kalifikazioaren barri emotea beharrezkoa izango da, beraz, etiketa energetikoa ez eukiteak, ez erakustek edota informazioa faltutzeak arau haustetzat joko da eta 300 eurotik 6.000 euro bitarteko isunagaz zigortuko da.

Etiketa energetikoa, Ziurtagirian agertzen dan informazio energetikoa A-tik G-ra graduatzen da; A letrea daukanak eraginkortasun handiena izango dau eta G letrea daukanak eraginkortasun eza.

Ziurtagiri energetikoa

Inmobiliaria Larreako Alaitz Biri-zuelak azaldu dauanez, Ziurtagi-


riak, etxebizitzak salmentan edo alokairuan jarri aurretik lortu eta inskribatu behar dira Eusko Jaurlaritzak horretarako daukan erregistroan. Erregistretaz batera, behar energetikoa adierazoten dauan etiketea lortzean da.

Ziurtagiria egiteko "Etxebizitzaren jaubeak gaitutako teknikari bat (arkitektoa, arkitekto teknikoa, ingeniaria edo ingeniari teknikoa) kontratau behar dau etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa ziurtagiria egin dagian eta hau eskuratzen danean 10 urterarako balioa izango dau".

Aholkularitza inbiliarietan

Aholkularitza behar izan ezker inbiliarietan konsultau daiteke. Izan be, etxebizitza, lokal, baserri, txalet... guztiak ez dabe ziurtagiria behar.

ARRATIA

**Errefujiaduen
aldeko
azokarako
gauzen
bilketea**

Areatzako Gortazar jauregian dago ointxe arte batutakoa.

Erredakzioa

Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak taldekoak, abenduaren 18an egingo dan bigarren eskuko azokea antolatuteko gauzak batzean dabiz. Zemendian Areatzan, Diman eta Artean batu ebezan hainbat gauza, baina abenduan be bilketeagaz jarraituko dabe herri batzuetan. Azokan lortutako dirua errefujiaduek behar egiten dauan alkarteren bateri emoteko izango da.


Azokan saltzeako erabilten ez diran gauza erabilgarriak hurrengo leku eta orduetan jasoko dira. Artean abenduaren 1ean, 2an eta 3an Kultur Etxeko goiko solairuan. Hilaren 1ean, eguena, 17:00etatik 18:00etara egingo dabe bilketea; hilaren 2an, 19:00etatik 20:30era eta 3an, 12:00etatik 13:00etara.

Lemoan hilaren 9an 17:00etatik 21:00etara eta 10ean 11:00etatik 13:00etara Gaztetxean batuko dabe gauzak.

Diman abenduaren 12an batuko ditue informazio bulegoan, 16:30etik 18:30era eta Igorren be egun berean 18:00etatik 20:00etara, Kiñu Gaztetxean.

Zeanurin ostera, abenduaren 16an, 17:00etatik 20:00etara egongo dira Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformakoak Kultur Etxeko aterpean azokarako gauzak batzean. Erropa asko daukiela eta hemetik aurrera gehiago ez dabela jasoko jakin arazo dabe OEEtik.

AREATZA



Pedro Alvarez, Areatzako notarioa.

**Notario aurreko lehenengo
ezkontza ospatu da Notariotzan****Erredakzioa**

15/2015 Legea garagarilaren 2ko Borondatezko Jurisdizinoarenak, eginkizun barriak emon eutsen notarioai; tartean, jentea ezkontzekoa. Areatzako Notariotzan, zemendian 24an gauzatu zan Arratiako notario aurreko lehen ezkontzea.

Pedro Alvarez Areatzako notarioaren arabera, arratiarrak ba-

doaz apurka-apurka aldaketa honetara moldatuten. "Eguneroko bizitzan igartzen dira aldaketok, herritarrek notaritzara hurreraten dira lursailen benetako azalera egokitzeko edo bizimodua aldatu gura dabelako, dibortzian edo ezkondu gura dabelako".

Arratiako lehenengo ezkontza izan zan, "baina ez da azkena izango" dino Areatzako notarioak.

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odoanongoa
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkuitu 101
R.P.S. 21/06

begitu
arria ubide suteria

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
T. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridika · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tinoia. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

ARRATIA

Igorreko lan bik irabazi dabe Beldur Barik Arratia



Yolanda Palacios Dimako zinegotzia, Esti Akasolo Hezkidetza Teknikaria, Illart Gumuzio eta Migel Angel Etxebarria AUMeko lehendakaria.

Erredakzioa

Igorreko gazteak egindako *Askatu sokak* lanak, 12 eta 17 urte bitarteko kategorian, eta *Sagarra manzana* 18 eta 26 urte bitartekoan, irabazi dabe 2016ko Beldur Barik Arratia Lehiaketea. Guztira 9 lan aurkeztu dira,

igaz baino 2 gehiago. Herriak jagokie-nan, aurten Arteak ez dau bialdu lanik; Dimak eta Zeanurik, barriz, igaz ez eben parte hartu eta aurten bai. Sari banaketa ekitaldia Diman izan zan zemendiaren 25ean.

Lehenengo kategorian, 12-17 bitartekoan, igazko moduan zazpi

lan egon dira lehian. Dimak lan bi aurkeztu ebazan, eta Igorrek, Areatzak, Zeanurik, Lemoak eta Bediak bana. Bigarren kategoriari jagokonean, 18 eta 26 urte bitarteko gazteena, aurten lan bi egon dira, bata Igorre eta bestea Bediatik bialduta. Igaz ez zan lanik aurkeztu kategorian honetan.

Lehenengo kategoriako bideo irabazleak gizarteak ezarritako estereotipoak askatasuna mugatzen daben lokarriak dirala eta libre bizi-tera animetan dauz gazteak. Egileak Nikole Ziarrusta, Julene Anton, Garazi Uriarte, Andoni Vazquez, Ainhoa Murgoitio eta Oier Leonardo dira. Saria, 300 euro eta diplomea, Yolanda Palacios Dimako zinegotziaren eskutik jaso eben.

Sano modu originalean azaldu eben Nerea Perez de Anuzitak eta Illart Gumuziok, 18 eta 26 urte bitarteko kategoriako irabazleak aniztasuna errespetatu behar dala, *Sagarra manzana* lanean. Esti Akasolo Lemoako eskolako Hezkidetza Teknikariaren eskutik jaso eban saria Gumuziok. Ekitaldia, Apika taldeko pailazoak animau eben.

ARRATIA

Berrehun persona inguruk adierazo eben manifestazioan indarkeria matxisteagaz amaituteko beharra

Erredakzioa

"Patriarkatuari egurre" pankartaren atzean, Arratiako herri guztietatik etorritako 200 persona inguruk, matxismoak hil egiten dauala eta matxismoagaz amaituteko beharra aldarrikatu eben zemendiaren 25ean Igorreko kaleetan. Pankartea Arratiako herri desbardinetako andrak eroan eben, bakotxa herri batekoa, matxismoaren kontrako burrukan bat egiten dabela erakutsiz.

Arratiako andra talde eta talde feministen sareak deitu eban manifestazio bateratua, baina herri bakotzeko herritarrai zuzendutako

ekimenak be egon ziran udala, eskola edo beste eragileen ekimenez Andren Kontrako Indarkeria Ezabatze Nazinoarteko Egunean.

Ikasleak martxea herritik

Arratia BHIko eta Inazio Zubizarre-

ta ikastetxeko LHko 5. eta 6. mailako ikasle, irakasle eta bertso eskoleak herrian zehar martxea egin eben andrak sufriduten daben egoerearen aurrean protesta egin eta gizartearen arazo honen inguruko konzientiazino soziala zabaltzeko. Ikastetxe ingurutik hasi eta herrian zehar egin eben martxea, barriri be ikastetxean amaituteko. Ibilbidea "Edozein erasoriguk hortzak erakutsi" lelodun pankartaren atzetik egin eben, ikasleak eta bertso-eskolakoak horretarako prestatutako musikearen errotora.



ARRATIA

Indarkeria matxistea dala eta, 23 andra atendidu ditu Mankomunidadeak

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeko (AUM) Gizarte Kintza Sailak emondako datuen arabera, 2016an, zemendiaren 1era arte, 23 andrazko atendidu ditu zerbitzuak genero indarkeria dala eta.

Indarkeria bizi daben andrai arre-ta hobe emoteko, esku hartzean daben erakundearen arteko Protokoloa dauka Mankomunidadeak. Protokoloari jarraipena emoteko mahaian, Ertzaintza, Osakidetza-Galdakaoko ospitaleko Urgentziak, Osakidetza- UAP Arratia eta AUM batzean dira, euren artean koordinatu eta erantzun bateratua emoteko. AUMko Gizarte Zerbitzuetan, arre-ta eta laguntza emon, baliabide espezializatuetara (laguntza psikologikoa, juridikoa...) bideratu eta koordinazioa eta kasuaren jarraipena egiten da. Bardintasun Zerbitzuan, informazioa, prestakuntza, koordinazioa, prebentzioa eta sensibilizazioa landuten da gainerako erakunde, alkarte eta herritarraz.

Jatorri, edade eta egoera zibil guztietako gizonak erabiltzen dabe indarkeria eta jatorri, edade eta egoera zibil guztietako andrak sufriduten dabe indarkeria hori. Mankomunidadeak aurten atendidutako andra gehienak Euskadin jaiotakoak dira (15), bat Espainiako estaduan eta zazpi atzerrian. Hamasei, adin txikikoen ama eta beste zazpiak edo seme-alabarik ez daukie edo adin nagusikoak dira seme-alabok.

Hamahiruk salaketea ipini dabe

Hogetahiru andra horreetatik, 13k salaketea ipini dabe. Euren artean 7 egon dira babes judiziala, indarrean edo iraungita, eukienak. Beste hamarrak ez dabe salaketarik ipini. Izan be, salaketea ipintea beti ez da onena izaten andrazkoarentzat, kasuz kasu aztertu beharreko gauzea da. Gainera, batzukaz, salaketa jarri baino lehen informazio juridikoa jaso dabe, salaketea jarri eta gero prozesua zelangoa izango dan jakiteko. Horregaitik batzuetan salaketea ipintea eta beste batzuetan ez ipintea ebazten dabe.

Mankomunidadeak atendidutako andren % 56 Gizarte Zerbitzuak bideratuta izan da, % 30,4 Ertzaintzak bideratuta, % 8,7k Osakidetatik eta %4,9k Zutitutik izan dau sarbidea.

Andren %74k laguntza psikologikoa jaso dau eta % 39k laguntza juridikoa.

Mankomunidadeak lau andrazko atendidu dauz etxeko indarkeriagaitik; hau da, euren bikotekidea edo bikotekide ohia ez dan familiako beste batek eragindako indarkeriagaitik. Horreetatik 3 Ertzaintzak bideratuta Gizarte Zerbitzuetara.

Arratian neska edo andra batek indarkeria mota hau bizi badau edo bizi dauanik ezetuten badau, telefono honeetara deitu leike laguntza jasoteko: 112 Larialdiak; 900 840 111 hogetalau ordukoa, debaldekoa eta konfidentziala, eta 94 631 17 17 Mankomunidadea. Gizarte Zerbitzuak eta Bardintasun Zerbitzuak 08:00retatik 15:00etara atendiduten dabe.

ARRATIA

Abenduak 1, HIESaren Aurkako Nazinoarteko Eguna

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeko Adikzinoen Prebentzio Zerbitzuetik, kanpaina prebentiboa abiatu dabe sexualitatea modu arduratsu eta seguruan gozatzeko; hau da, zenbait jarkera eta jokabide desegokiri aurrea hartzeako. Izan be, gaur egun, GIB infekzio gehienak babes bako sexu hartu-emonen bidez transmitiduten dira. Izan be, "sexu hartu-emon seguruak izatea da GIBaren aurkako hesi onena" dino Alaia Ozerinjuregi AUMeko Adikzinoen Prebentzio Teknariak.



Abenduaren 1aren inguruan, "11 era daude zure sexualitatea modu seguruan gozatzeko" lelopean, ikastetxe, gazteleku eta udaletan material informatiboak eta preserbatiboak bananduko dira.

U2T UBITE
ERAIKUNTZA MATERIALAK

Tel.: 94 631 60 65 - 615 75 87 92
e-mail: ubitemat@ubitesl.com
Igorreko Industrialdea, Pab. 11F - 1A
48140 IGORRE (Bizkaia)

ERA GUZTIETAKO MATERIALAK ERAIKUNTZARAKO

LUR BEGETALA
EGURRA ZAKUETAN

ASTELEHENETIK BERRIKURRA
07:45-12:45
14:00-18:30
ZAPATUETAN
08:30-12:30

ABENDUAK 3, EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Gero eta euskaldunago izan gura dau Arratiak

Euskerearen Nazinoarteko Egunean, euskerearen erabilera bultzatzeko eta hizkuntz ohituretan eragiteko hainbat ekitaldi antolatu ditue gure eskualdean. Izan be, Arratian euskera jakite maila, txarra ez bada be, erabilera bultzatu eta euskeraz bizi gura dabe arratiar askok, euren herria euskerearen arnagunea izan daiten. Dima Udalerrri Euskaldunen Mankomunidadean (Uema) sartu zan maiatzean, Artea eta Areatza be Ueman dagoz. Arantzazun, Zeanurin eta Zeberion be herritarren % 70tik gora da euskalduna. Erabilera bultzatzeko Berbalagunak egiten daben beharra errekonoziduko jakie Igorren.

Erredakzioa

Euskerearen arnagune deitzean jakie udalerrri euskaldunai, euskereak arnasa hartzean daualako herri horreetan. Izan be, bertako herritarrek, neurri handi baten, euskeraz bizi dira. Udalerrri euskalduntzat jotzen dira bertako herritarren % 70 baino gehiagok euskera dakienean. Eustat-en 2011ko

datuen arabera, Arantzazu, Artea, Dima, Zeanuri eta Zeberioko herritar euskaldunak % 70ko langa hori gairiditzen dabe. Euskerearen indizea aplikau ezkeru, (euskaldunen % + ia euskaldunen % / 2) Arratiako ia herri guztiak udalerrri euskaldunen artean egongo litzatekez.

Uema 1991n sortu zan udalerrri euskaldunak euskera hutsean

funtzionetako helburuagaz. Ueman sartzeako herritarren % 70 euskalduna izateaz gainera, udalak euskeraz funtzionetako eta Uemako beste udalakaz batera "hizkuntza politika aurrerakoiak" egiteko borondatea izan behar da. Diman, herritar ia guztiak, % 82,49 dira euskaldunak.

Baina euskerearen ezagutze maila handia izan eta gora egin

arren, Euskal Herriko beste leku gehienetan gertatzen dan legez, erabilereak behar izan dau Diman be. "Ezagutza aurrera doa baina ezagutzak ez dau ziurtatzen erabilera. Hori esparru askotan ikusten dogu. Horregaitik ebatzi genduan nortasun eta herri izakera antzekoa daukien herriak hartu-emonak sendotuteko Ueman sartzea egokiena zala" dino Ibon Iza Dimako euskera zinegotziak. Euskerearen Egunean, pasa dan maiatzean Dima Ueman sartu zala ospatuko dabe. Ospakizunera Arratiako beste herrietako ordezkari politikoak konbidau ditue.

Jaiari UDIME Eguna deitu deusie, Udalerrri Dimeslari Irudimentsu Maite Euskalduna, alegia. Euskera zinegotziaren arabera, jaiari, euskerea balioan ipinteko izango da eta herritarrek izango dira protagonista, "eurak diralako protagonista euskerearen sustapenean". Seiretan hasiko da ospakizuna, Zamakola jubiladuen abesbatzaren emonaldiagaz. Ondoren umeen txandea izango da eta eurak antzeztutako obra eta koreografia eskeiniko dabe. 18:30ean, ekitaldia politikoa. Ekitaldian udal ordezkariak Dima zergaitik sartu dan Ueman azalduko dabe, eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunidadearen ordezkari-

ren bat egongo da informazioa emoten. Ondoren, abesbatzak kantauko dau barriro, 19:00etan zunba saioa, 20:00etan herri kirolak eta 22:00etan, erromeria Ezten Giro taldeagaz. Izan be, eguna euskeraz gozatzeko izango da batez be.

Udalerrri euskaldunak euskerearen arnagunetzat daukiez Uemakoak eta arnaguneeen inguruan, umeakaz eta gurasoakaz landutako tailerra prestatu dabe. Dimako eskolan teknikari bi egon ziran hori tailerri emoten. Teknikari bat gurasoakaz egon zan gela baten arnaguneeen kontzeptua eta Diman euskerearen bilakaerea azalduten; eta beste bat, aldi berean, umeakaz euskera non eta noz erabilten daben aztertzen. Azkenik, umeak eta gurasoak alkartu eta danon artean hausnartu eben egiten daben euskerearen erabilerearen inguruan.

Igorren be, arnaguneeen inguruko tailerra emongo dabe, abenduaren 14an, 19:00etan Kultur Etxean.

Artea eta Areatza Ueman

Artea be Ueman dago. Iker Atutxa Arteako euskera zinegotziaren arabera, "Arteako euskera jakintza maila % 80 baino altuagoa da. Erabilera maila be oso altua, baina ez daukat daturik".

Artean Berbalagun proiektua martxan ipinten dabilz udaletik. Hurrengo urterako ipini gura dabe martxan. "Horretarako AEK eta Areatzako Udalagaz gabiz beharrea" dino Atutxak.

Euskera jakintza maila altua izan arren, maila hori hobetuteko egiten dau behar Udalak eta euskera ikasteko eta tituluak lortzeko diru laguntzak emoten ditu Euskera Zerbitzuak.

Areatzak herritarri Ueman sartu danaren barri emongo deutse. Hori 18:15ean izango da eskolako aterpean, abenduaren 2an, Euskerearen Eguneko jaiaren barruan. Aurrezdiak, 16:45ean merienda eta tailerrak eta 18:00etan bertsoak egongo dira. Ondoren, familian eta euskeraz zunba egiteko aukera egongo da.

Berbalagunai omenaldia Igorren
Igorren "Euskeraz bizi nahi dut"

Abenduaren 3an DIMAN

- 18:00. Abesbatzaren emanaldia.
- 18:15. Haurrek antzeztutako obra eta koreografia.
- 18:30. UDIME ekitaldia.
- 18:50. Abesbatzaren emanaldia.
- 19:00. Disko dantza saioa.
- 20:00. Herri kirolak.
- 22:00. Erromeria, Ezten Giro taldearekin.

UDIME eguna
udalerrri dimeslari irudimentsu maite euskalduna

UEMA

Beer & Edariak s.l.

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendietza, s/n 48550 LIZBOA, Bizkaia
Tel: 090 480 8300 ou 900 200 717

ZEKUTZE
JATETXEA

Sabino Arana, 34
48040 KAZORRE - Bizkaia
zikatorjatzekute@hotmail.com

Tel.: 94 631 52 83

ugatxa
taberna

Ugarana kalea, 8
48141 Dima
T. 946 129 460

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Elaxalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

Kili-Kili

Umeen denda
94 673 63 51

Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

belagorri

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zeliakoentzat elikagaiak
estetiziana

Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56

L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

film laburren bildumeagaz hasi ziran euskerearen eguneko ekitaldiak. Zemendiaren 30ean, euskeraz eta euskerearen aldeko 10 film labur eskeini ebezan Kultur Etxean. Filmon aukeraketea Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak egin dau eta euren film laburren lehiaketetakoak ziran.

Abenduaren 2an *Bi arreba* ikuskizuna egongo da Lasarte Aretan eta hurrengo egunean, Euskerearen Egunean, 11:00etan kalejira Eingo taldeagaz; 11:30etik 12:30era umeentzako jolasak Kultur Etxean eta 12:30ean Berbalagunai omenaldia eta hurreratzen diran guztientzako kopautxoak. "Aurten leku berezia emon gura jakie Berbalagunai Euskerearen Egunaren ospakizunean, euskerea indartuteko eta euskeraz biziteko egiten daben, edo egin daben, esfortzuagaitik. Horregaitik, urteetan zehar ibili izan diran Berbalagunak konbidauko doguz. Ekitaldi sinplea izango da, oroiarra emon eta gero kopautxoak danok batera. Herri guztia dago konbidautu. Kultur Etxean izango da" azaldu deutso BEGITURI Irati Barrenetxea Igorreko Euskera Teknikariak. 18:00etan, Dimako Udime jaialdira joateko deia egin dabe Igorretik.

Arantzazun, Bedian, Zeanurin eta Zeberion, batez be umeai zuzendutako ekintzak prestatu dabez. Arantzazun, *Kontakatillu* txotxongilo ikuskizuna egongo da abenduaren 2an, 18:30ean, frontoian. Bedian, tailerrak ludo-terekin, hilaren 2an, 17:00etan, eta Zeanurin, Iñaki Lasa kontu kontalariak helduentzako ipuinak kontauko ditu 19:30ean Txoko Sagaran. Esti eta Olatzen kontzertua be egongo da 21:00etan Jubiladuen tabernan.

Zeanuri be herri euskalduna da, "euskeraz asko egiten da. Eguneroko hartu-emonetan euskerea erabilten da hizkuntza nagusi lez" dino Eneritz Iza zinegotziak.

Zeberion, ume eta nagusientzako ekintzak prestatu dabez. Ospakizunak bizikleta martxagaz hasiko dira. Partaideak 11:00etan urtengo dira plazatik. Gero, 12:00etan, umeentzako jolasak plazan, 13:00etan taolak aterpean, eta jaiari amaiera sinbolikoa emoteko 14:00etan, barruan mezuak dituen puxikak botako ditue airera. Herriko trikitalari gazteak animauko dabe giroa.

Kolorea, kantuak, jantza eta festa Lemoan

Lemoan egun bitan ospatuko dabe Euskerearen Eguna, hilaren 2an eta 5ean. Egunaren bezperea barikua dala aprobetxau gura izan dau Udaleko Euskera Zerbitzuak jentearengana hurreratzeko. "Lemoan beti egin izan dogu formatu txikiko gauzatxoren bat herriko alkarteakaz, beti eurak guregana hurreratuta. Aurten, geu urtetea kalera ebatzi dogu, eta kalean dagoan jentea geureganatu" azaldu deutso BEGITURI Miren Madariaga Lemoako Euskera Teknikariak.

Barikuetan, poteoa egoten danez, horretara gehitu dira udalekoak. Burrenba Elektrotxarangeagaz ordu bi inguru ibiliko dira, jai giroan eta euskeraz. Ondoren, herriko gazteak "Harro bizi euskeraz Lemoan" kantuen koreografia egingo dabe. "Mozorroak, jai giroa, festa, kolorea, musikea... eta hori dana euskeraz. Euskeraz egitea posible dala erakutsiz" dino Madariagak. Horregaitik jaiari "Euskeraz jantzatu, abestu, musika jo, gozatu, bizi gura dot" izena ipini deusie. Giro polita eta alaia sortzea da helburua, bizipen

positiboz betetakoak.

Kalejira musikatu eta koloretua aprobetxauko dabe jenteari Berbalagun egitasmoan parte hartzeako konbitea egiteko. Photocall-a be ipiniko dabe, kadrilan, banaka, binaka eta abar "euskeraz gurago" dabela adierazteko eta erretratuak aterateko.

Lemoa asko aldatu da 2011n datuak publikatu ziranetik. "Datuak ez dira errealak, joan-etorri asko egon diralako harrezkerotik. Familia ereduak be aldatu egin dira. Uste dogu erabilereak behera egin dauala" dino teknikariak.

Horregaitik, jente gehiagok egin dagian euskeraz, jai giroan eta ondo pasetan, euskereak lemoztarrak seduzidutea gura dabe Miren Madariaga eta Gorka Barrenetxea Lemoako euskera teknikariak.

Abenduaren 5ean, beste jai bat egongo da ikastetxeak antolatuta. Ume eta gaztetxoai zuzenduko dira oraingoan, eurak be kantuz eta jantzan ospatu dagien Euskerearen Eguna.

"Zer egin dezaket nik euskeraren alde?"

Aurten lehenengoz Euskerearen Egunean EAEko instituzinoak eta euskalgintzak adierazpen eta ekitaldi bateratuak egingo dabez. Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazinoak, uriburuetako udalak, Eudel eta Uemak bultzatu dabe adierazpen bateratua.

Testuak 500 atxekimendu baino gehiago jaso ditu. Tartean, AEK, Topagunea eta Bertsozale Elkartearnak. Baita Legebiltzarrean dagozan alderdi politikoena be. Alkarteak, sindikatuak eta kirolariak be, besteak beste, sinatu dabe testua.

ALKIZABAL
ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK
ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

TXIRRINDULARITZEA

**Sasoï desbardineta
txirrindularitzearen inguruko berbaldia
egin dabe Lemoako Kulturgunean**

Hainbat adituk parte hartu dabe berbaldian, batez be txirrindularitza profesionalak izan eta diranak.



Julen Zuberok, Julian Gorospe, Anton Barrutia, Luis Zuberok, Marino Lejarreta, Fernando Astorkia eta Iban Mayo.

Rakel Aldekoa Diez

Lemoan Kirol Astea dala-eta, sasoi desbardineta txirrindularitzearen inguruko berbaldia antolatu eben Lemoa txirrindulari elkarteak, Ciclos Zuberok eta Lemoako Udalak. Hizlariak, Anton Barrutia, Luis Zuberok, Marino Lejarreta, Julian Gorospe, Iban Mayo, Julen Zuberok eta Fernando Astorkia izan ziran.

Anton Barrutia danetatik zaharrenak, emon eutsan hasikerea berbaldia Josu Loroño, moderatzaileak eginiko galderai erantzunez. Barrutia, urte betean 35 karrera irabazi ebazala adierazo eban. Horreetatik bi Espainiako Txapelketan, eta beste 7 Espainiako Itzulian.

Marino Lejarretak, bere sasoi eta gaur egungo txirrindularitza konparau ebazan. Gizarteak eboluzionau daua eta horregaz batera ziklismoak be aurrera egin daua esan eban. Egun, teknologia barriak dagoz eta horregaitik ziklismoan dana kalkuletan dala gaineratu eban Lejarretak.

Julian Gorospe bat etorri zan Lejarretagaz eta denporak aldatu dirala azpimarratu eban. Alde batetik, lehen mundu txikiagoan ibiltzen ziralako eta bestetik, gaur egun, karrera gehiago dagozala, baita marketin handia be. Enpresak aldatu egin dira eta diru asko mobiduten da.

Iban Mayo, gazteenak be emon eban bere eretxia: "Prestakuntza asko aldatu da. Gaur egun, asko zabaldu da txirrindularitza, jente askok disfrutetan dau. Egun gainera, detailera prestatzen dira karrerak", adierazo eban Mayo.

Julen Zuberok beste ikuspuntu batetik egin eban berba. Izan be,

berak ziklismoa ez hain profesionala eta hain metodikoa dan ikuspuntutik bizi dau. Hala be asko disfrutetan daua azpimarratu eban.

Fernando Astorkia be izan zan hizlari. Nahiz eta txirrindularia ez izan, txirrindularien mediku ibili da hainbat urtetan. "Txirrindulariak egiten genduan polita zan, asko ikasi neban. Medikuen iraultza gertatu zanean guztia aldatu zan, danak onera egin eban", azaldu eban Astorkia.

Pinganiloa eztabaidagai

Berbaldiaz jarraituz, diru publikoa txirrindularitza alderantzizkatzearen inguruan jardun eben txirrindulariak. Julian Gorosperen ustez, gaur egun diru gitxi emoten jako txirrindularitza eta goian dagozanai bakarrik emoten jakielu kritikau eban. "Sasoi baten diru gitxigaz taldea sortzean zan, gaur egun medikua behar da, eta abar. Askoz gaxagoa da taldea sortzea", adierazo eban Gorospe.

Moderatzaileak, beste galdera bat egin eutsen adituai, euren sasoi txirrindularitza ona zana gaur egun be preparazio bardingaz ea ona izango litzateken eta guztiak bat egin eben erantzunean.

Beste gai bateri erreparatu, Loroñoren ustez, txirrindularitza esentzia galdu dau gaur egun pinganiloa erabilten dabalako. Bere ustez, txirrindulariak robotak modukoak dira. Pinganiloaren gaineko eretxi desbardinak agertu eben profesionalak. Anton Barrutia pinganiloa kenduko lekuela adierazo eban. Julen Zuberok, barriz, alde onak eta txarrak ikusten deusaz aparatuari. Izan

be, pinganilotik zer egin behar dozun esaten deusue eta hori batzuetan oztopo bilakatu daitekela eta beste batzuetan, ona izan daitekela adierazo eban. Fernando Astorkiak, Txomin Perurena ekarri eban gogora bere ustez bera izan zalako pinganilorik onena. Astorkiaren ustez, dana oso ondo antolatzeko gaitasun handia eukan. Hata guzti be, ez dator bat pinganiloaren erabilereagaz. Luis Zuberok be ezezkua emon eutsan, pinganiloagaz dana oso kontrolauta dagoalako. Marino Lejarreta ez etorren bat Astorkia eta Zuberogaz, eta maila profesionalen pinganiloaren alde egin eban. Teknologia lagunduteko dagoala esan eban eta pinganilotik zuzendariak taldearen onuran gidatzen daua txirrindularia gaineratu eban. Julian Gorosperen ustez telebistak dauka txirrindularitza dana kontrolpean egotearen errua. Mayoren eretxian: "pinganilora ohitu gara eta egia da informazio asko emoten daua, dana kontrolatuago dago, baina niri laguntzen deusta".

Amaieran, Euskal Herriko txirrindularitza gaur egun daukan egoeraz egin eben berba. Marino Lejarretaren ustez, apurka-apurka hobetuten joango da, baina pazientzia ezinbestekoa da, etorkizuna badago. Julian Gorospek, txirrindulari onak dagozala baina aukeraketa gitxi dagoala esan eban. Sasoi baten baino ekipo gitxiago dagoz. Julen Zuberok, faktore askok eragina daukiela gaineratu eban, guraso gehienai ez jakielako gustetan euren umeak holango kirol arrisksua praktiketea, edota gurago dabalako beste kirol merkeago baten apuntau.

MENDI MARTXEA

**San Kristobaleko XIV.
Mendi Martxea****Erredakzioa**

Intxaurbizkar Kultur Elkarteak San Kristobaleko XIV. Mendi Martxea antolatu dau abenduaren 3rako. Ibilbide bi dagoz aukeran, luzeak 20,5 km. ditu eta laburrak 17. Urtekerea Igorreko San Kristobaleko plazatik izango da 08:30ean. Martxea amaitutakoan partaideentzako oparia eta kopautxo

egongo da.

Ibilbide bi dagozan moduan, partaidetza modu bi be egongo dira. Martxea bakarrik egin daiteke izena emotean 5 euro pagautan edo martxa eta babajana, 10 euroko prezioan. Izen emotea zementiaren 30ean zarratu zan eta martxa egunean bankuko agiriak aurkeztu behar dira 08:00retan parte hartu ahal izateko.

**IGORREN
SAN KRISTOBALEKO
XIV. MENDI MARTXA**

MOTORRAK

Enduro taldearen urtekerea**Erredakzioa**

Berrogeta bost lagunek hartu eben parte zementiaren 20an, Zeanuriko Enduro taldeak antolatutako 27. edizinoko urtekeran. Ateri egon zan arren, Quad, trial zein enduroko motorrak lupetza topau eben ibilbidean.

Partaideak Zeanuri, Zeberio, Dima, Lemoa, Bedia, Igorre, Areatza, Bilbo, Gasteiz, Usansolo eta Durangotik etorri ziran Zeanurira. Goizeko 09:00etan Zeanuriko Arregitik urtenda, Altun, Ubide eta Oletatik pasau eta Zeanurin amaitu eben ibilbidea.

Partaide batek, lupetz artean urten ezinda, beste partaideen laguntza behar izan eban.

Zeanuriko Enduro taldeko Pedro Sagarnak antolatu dau lagun giroan egiten dan urteker hau. Helduak zein gazteak hartu eben parte eta Oletan egin eben indarrak barritzatzeko armosua.



ZIKLO-KROSA

Berrogei urte beteko ditu aurten Igorreko Ziklo-krosak

Abenduaren 11n izango da Igorreko Ziko-krosa, Euskadi Basque Country Challenge aurten. Arratiako Ziklista Elkarteak (AZE) antolatuten dauan proba honen berrogeigarren urteurrena denez, probearen historia jakitera emoteko, argazki erkusketea, 40 urteotako historia jasoten dauan filmaren aurkezpena eta ziklo-krosari buruzko berbaldia egongo dira. Bertan, Daniele Pontonik, Mario de Clerq-ek eta Jose Mari Yurrebasok hartuko dabe parte.

Erredakzinoa

Lasterketea, 09:00etan hasiko da. Masterrak izango dira lehenengoak lehian; M30, M40, M50 eta M60 kategoriakoak, hain zuzen. Gero 10:00etan Kadeteen txandea izango da, neskek eta mutilak. 11:00etan Gazteak, orangoan mutilak bakarrik. Sari banaketaren ostean, lasterketa nagusi biak izango dira. 11:45ean, andrazkoena, Gazte, Sub23 eta Elite mailakoak, eta 13:00etan, gizonezkoena, Sub23 eta Elite mailakoak. Azken lasterketa bi honek ETB4k zuzenean emongo ditu.

Euskadi-Basque Country Challengek hiru proba ditu eta azkena izango da Igorrekoa. Lehenengo lasterketea, hilaren 4ean izango da Zuiako Ametzagan (Araba); bigarrena, hilaren 8an Asteasun (Gipuzkoa), eta hirugarrena Igorren, hilaren 11n. "Aurten lehenengo urtea da eta oinarri sendoak ipini gura doguz urteetan mantentzen dituen" esan eban Juan Mari Zurinagak AZEko presidentek Challengearen prensa aurreko aurkezpenean.

Nazinoarteko ziklo-krosari askok hartuko dabe parte Igorren. Tartean, Lars Boom eta Patrick Van Leuwen holandarrak eta Helen Wyman britainiarra edo Sara Casasola italiarra izango dira.

Arratiako talde guztiak, Arratia-

UCI EUSKADI BASQUE COUNTRY IGORRE 40 URTE
ABENDUAK 11 2016 XL. ZIKLOKROSS - IGORRE
09:00 30, 40, 50, 60 MASTERRAK
MASTER 30, 40, 50, 60
10:00 KADETEAK (Mutil eta Neskek)
CADETES (Masculino y Femenino)
10:45 GAZTEAK JUNIOR
11:15 SARI BANAKETA
ENTREGA DE PREMIOS
11:45 EMAKUMEAK:
GAZTEAK - SUB 23 - ELITE
FEMINAS:
JUNIOR - SUB 23 - ELITE
12:45 GIZONAK: ELITE - SUB 23
NOBRES: ELITE - SUB 23
13:50 SARI BANAKETA
ENTREGA DE PREMIOS
www.ziklokrossigorre.com

Ziklo-krosaz gain hainbat ekintza prestatu dabez aurtengorako.

Murias, Fisik-Banco Mediolanum eta beste taldeetako arratiar guztiak, Igorren egotea espero dau Zurinagak.

Andren parte hartzea garrantzua

Igorreko Ziklo-krosak, andren partaidetzea bultzatu gura dau. Igaz, lehenengoz, kategoria guztietako sariak bardinak izan ziran. Aurten, lehenengoz, ETBn zuzenean emongo dabe andrazkoen lasterketea. Zurinagaren arabera, ziklo-krosari onak etorriko dira Igorrera "Munduko Txapelketak jokatzen dituen, atzerriko hainbat andra izango doguz gurean, Ingalaterra, Holanda, Italia, Frantzia eta Belgikatik etorrita eta sano

polita izango da tropela, 30-40 bat ziklo-krosari batera".

Berbaldia eta erakusketea

Argazki erakusketearen inaugurazioa abenduaren 10ean izango da 18:00etan Igorreko Kultur Etxean. Ondoren 18:30ean, 40 urte honeetan zehar Igorreko Ziklo-krosean parte hartu daben hainbat ziklo-krosarik euren esperientziak konpartiduko dabez zaleakaz. Igorreko Ziklo-krosa hirutan irabazi dauan Jose Mari Yurrebaso, Daniele Pontoni, 6 bider irabazi dauana eta Mario de Clerq izango dira hizlariak. Gero, 19:00etan, *Igorre 40 urte Ziklokrosean* dokumentala proiektatu da.

MENDIA

Alex Txikon, Ali Sadpara eta Simone Mororen berbaldia Igorren

Erredakzinoa

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Alex Txikon, Ali Sadpara eta Simone Moro egongo dira abenduaren 15ean, Igorreko Lasarte Aretoan, Nanga Parbat mendira egongo diren ikerketaren ondoren.

Alex Txikon mendizale lemoaztarra eta bere kideak Ali Sadpara pakistandarrak eta Simone Moro

italiarrak, pasa dan zezeilaren 26an lortu eben lehenengo aldiz, Nanga Parbat (8.126 m.) mendiko ton-torra neguan zapaltzea. Euren ikerketaren ondoren, baina tontorretik metro gutxi batzuetara geratu ziran.

Hilaren 15ean, 19:30ean, Txikon, Sadpara eta Moro berbaldia eskeinitako dabe Igorren eta bertan ikerketaren gora-beherak kontatu dabez.

Hitzaldia
Neguko lehen igoera
NANGA PARBAT
8126m Ali Sadpara
Simone Moro
Alex Txikon
Abenduak 15. Arrastiko 19:30ean
Lasarte Aretoan (Igorre)
Sarrera dohainik
GANZABAL MENDI TALDEA

MENDI LASTERKETEAK

Joanes Goitisolok eta Oihane Perezek irabazi dabe Lemoatx Trail mendi lasterketea

Erredakzinoa

Gernikar bik irabazi dabe aurten Lemoatx Trail mendi lasterketea: Joanes Goitisolok gizonezkoetan eta Oihane Perezek andrazkoetan. Arratiarrak sano marka onak egin eban, eta lehenengo 20ren artean, Arratiako lau lasterketari sartu ziran.

Zemendiaren 19an izan zan proba. Bertan 129 kirolarik hartu eben parte. Arteko Asier Egia izan

zan lehenengo arratiarra, 8. eginda 1:22:43 kronoagaz. Irabazleak zazpi minutu eskas baino ez eutsazan atera. Hurrengo arratiarrak, Lemoako Asier Asua eta Xabi Kantsau izan ziran hamaikagarrena eta hamalagarrena, hurrengo hurrengo. Arteko Imanol Agirrek hamazazpigarren egin eban.

Andrazkoai jagokienean, andrazko gutxi hartu eben parte eta lehenengo postuetan ez zan arratiarik egin.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gas
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

IKUSKIZUNA

Xabier Lizaso eta Andoni Egaña Lasarte Aretoan**Andoni Egaña eta Xabier Lizaso *Bi arreba* ikuskizunean.****Erredakzinoa**

Xabier Lizasok eta Andoni Egañak Chopinen musika eta Xenpelarren bertsoak batzean dituan ikuskizuna eskeiniko dabe Igorreko Lasarte Aretoan, abenduaren 2an, arrastiko 17:00etan.

Xabier Lizaso pianojolea Chopinzalea da eta Andoni Egaña bertsolariak Xenpelarren bertsoak ditu gustuko. Chopin eta Xenpelar

sasoi berekoak ziran, biak ziran barrizaleak, katolikoak, estadu bako nazinoetakoak, biak bizi izan ebezan sasoi gatazkatsuak, gazte hil ziran eta heriotzako momentuan biak izan eben ondoan arreba.

Hori dala eta, Lizasok eta Egañak mundu bi, obra bi, kultura bi eta arreba bi ezetuten emoteko *Bi arreba* ikuskizuna eskeiniko dabe.

KONTZERTUAK

Kontzertu interesgarri bi oraingo hilean Corner-ean**Erredakzinoa**

Betiko musika komertzial bardinatik harago, mundu oso bat dagoala erakusten jarraituten dau The Quiet Corner-ek, proposamen interesgarri eta bereziak eginaz. Abenduan, kontzertu bi dagoz iragarrita zein baino zein interesanteago.

Hilaren 10ean, Juan Iñaki abeslari eta perkusionista argentinarra egongo da Areatzan. Kepa Junkegaraz jiran dago eta Cornerrera hurreratuko da bere musika eskeintzera.

Juan Iñakik bost disko ditu kallean eta "bere belaunaldiko abots interesgarrienetakotzat" jotzen dabe Argentinan.

Marcos Salcines Quartet

Hilaren 17an, Marcos Salcines Quartet da etortekoa. Marcos Salcines pianojoleagaz, Elsa Lizundia saxo jotzailea, Gorka Iraundegi baterajolea eta Carla Sevilla kantuan jazz soinuak ekarriko ditue Areatzako baztarrik lasaienera.

Emonaldi biak arrastiko 20:00etan izango dira.

**Juan Iñaki, abeslari eta perkusionista argentinarra.**

LEHIAKETEIA

"ArtiXtak" ipuinagaz irabazi dau Idoia Garzesek Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketea**Maite Arrizabalaga, Idoia Garzes eta Unai Ormaetxea.****Erredakzinoa**

Idoia Garzes Lasarte-Oriako kazetaria eta igazko irabazleak irabazi dau aurten be Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketea. Zornotzako Unai Ormaetxearen "Woodstock"ek eroan eban bigarren saria eta Igorreko Maite Arrizabalagaren "Ebaren alukeriak" Arratiakoa.

Idoia Garzes kazetariak ETBn egiten dau behar informatiboetan, zenbait saiotan gidoigile moduan eta lehiaketa desbardinatarako galderak prestatzen. Narrazioaz aparte antzerkia be idazten dau eta sariak be irabazi ditu. Igazko Dimako Kalenturak Lehiaketako irabazlea be bera izan zan. "Igaztik hona, betiko lez, aldean daroan koaderno beteten joan naz. Deigarriak egiten jatazan berbak, aipuak, egoerak idazten eta asmatutako istorioak hiruzpau berbetan biltzean. Koaderno mordo daukat, bai, baina..." dino Garzesek.

"ArtiXtak" ipuinean andra bat da protagonista. Modelo lanak egiten ditu pintore baten klaseetan eta modelo lanak egingo ditu baita be eskultore baten estudioan. Modelo honen pentsamentuak harrapatu egiten dauz irakurleak. Eta ondo mantenedutako tensioak eta ezusteko amaierak ipuin biribila egiten dabe.

Badirudi gipuzkoarrak momentuz ez daukala ezer argitaratzeko asmorik. "Istoriok buruan gartzeagaz konforretan nazala esan daiteke. Gainera, lotsa eta errespetu handia emoten deusta liburu bat aterateak. Argitaratzen dana ona izan behar daualako eta nik langa nahiko goian ipinten deustalako neure buruari".

Bigarren saria Unai Ormaetxearentzat

Bigarren saria, Unai Ormaetxea Zornotzako idazle eta musikariak eroan dau. Exkixu eta Ken Zazpizagaz ibili izan da urteetan, baina bere gauzak be egin ditu; berbarako *Mario haritik tiraka* liburu cd-a 2008an. Zornotzarak hiru liburu kaleratu ditu, *Afalosteko kafeak* 2004an, aitaturako *Mario haritik tiraka* liburu cd-a 2008an eta *Bille* 2016an.

Atzen liburu honen harira, Inun kantautoreagaz emonaldia prestatu dau, Zornotzan zemendiaren 30ean aurkeztuko dauana. Ikuskizun hau Durangoko Azokako Ahotsenean eta Arantzazun abenduaren 16an, 20:00etan, ikusteko aukerea dago.

Dimako Kalenturetan aurkeztutako lana "Woodstock", jaialdi haretan, 69an, berau bizitako bikote baten esperientzia da. "Orainean, bikoteak, euren hirurogeta bederatzina urteak egun, andrak, lo dagoan gizonari kontari gogoratzen jabilkona. Denporea eroan deustan lana izan da, dokumentau behar izan naz eta, (gura bai baina neuk bizitakoa ez da) eta hiztegi lan sakon bat be egin. Hori guztia lotzea ekarri dau noski, aurrez neukan idea, edo gaiari buruz nebazan idatziak; 'pentsamoldeak'. Gero dana koherentziaz eta graziaz orratzea da azken lana" azaldu deustoa BEGITU-ri Ormaetxeak.

Arratiako onena Maite Arrizabalagarena

Maite Arrizabalaga igorretarrarentzat izan da Arratiako saria. Ebaren bizitako egun bat kontetan deusku "Ebaren alukeriak" narrazioan. Udarbarria da eta maitale bila dabil Eba.

EUSKEREIA

Dimako kimuak, jaiobarrientzako bertsoak eta marrazkiak**Erredakzinoa**

Dimako Udalak, ume jaiobarriai eta euren gurasoi *Dimako kimuak* izeneko marrazki eta bertsoz osotutako liburuxka bat oparitu deutse, aurten bigarren bez. Aurtengoak 2015ean jaiotako umeai egindako bertsoak eta marrazkiak jasoten dauz. Marrazkiak Maite Yurrebasok egin ditu eta ume bakotxarentzako bertsoak Ibon Izak.

Udal iturrien arabera, opari honen helburua "umeak eta gurasoiak lehenengo harremana euskeraz" izatea da, "kantuz eta euskeraz Dimako etorkizuna argitu gura dogulako".

DURANGOKO AZOKEA

Gabon aurreko urteroko hitzaurrea Durangon hilaren 2tik 6ra**Erredakzinoa**

Abenduaren 2tik 6ra izango da 51. Durangoko Azokoa, atzen 28 urteetako goiztiarrena. Urtero lez zita bat daukie arratiarrak bertan euskal kultureagaz. Bost egun horreetan, 349 nobedade, 246 erakustoki eta 200 ekitalditik gora batuko dira azokearen inguruan.

Baina azoka bat baino gehiago da Durangokoa. Kontzertuak, solaslaldiak, proiektzioak, umeentzako jarduerak, tailerrak eta ikuskizunak sano erakargarri egiten dabe bertara joatea. Eta Arratia eta Zeberioko sortzaileen lana be topau daiteke bertan, erakustoki zein Ahotsenean, berbarako.



LIBURUA

450 mito eta esaunda jaso dauz Juan Manuel Etxebarriak kaleratu barri dauan liburuan



Juan Manuel Etxebarria, Andres Urrutia eta Gontzal Mendibil.

Erredakzioa

Juan Manuel Etxebarriak *Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esaundak II* kaleratu barri dauan liburua aurkeztu eban zementziaren 17an, Zeberion. Aurkezpen ekitaldian, Andres Urrutia Euskaltzaindiako presidentea, Montserrat Petralanda zinegotzia, Gontzal Mendibil musikaria, liburu hau egiteko Juan Manuel Etxebarriari lagundu deusana kontaktak jasoten, eta hainbat barriemole egon ziran. Itxaso Atutxa, EAJ-PNVko Bizkaiko Buru Batzarreko presidentea be egon zan ber-

tan eta berba batzuk egin ebazan hasikeran. Izan be, Atutxak umetan eta unibersidadean Juan Manuel Etxebarria izan eban irakasle.

Gontzal Mendibilek hasi eban aurkezpena, kantu barri bategaz eta gero Manu Etxebarriaren aurkezpena egin eban Itxaso Atutxak. Andres Urrutiaren txandea izan zan gero. Euskaltzaindiak eta Deustuko Unibersidadeak argitaratu dabe *Gorbeia inguruko etno-ipuina eta esaundak II* liburua eta Urrutiak argitalpen honen zergaitia eta liburuaren balioa adierazo ebazan. "Egunero erabilten dogun hizkun-

tzan altxor bat dago. Hari nagusiak atera behar dira, eta hortik jakituria" esan eban.

Etnografia eta hizkuntzalaritza Etxebarriaren liburuan 23 herritan, 102 barriemoleetatik, 450 mito eta esaunda jasoten dira. Ipuin honek zutabe bitan agertzen dira, baten, entzuten dan moduan (Unibersidadean Fonetika irakaslea izan zan Etxebarria) kontrazino eta guzti, eta bestean, entzundako hori idazten dan moduan. Horregaitik balio bi daukaz: etnografikoa eta hizkuntzalaritzaren aldekoa.

Hitzaurrea eta Sarreraren ostean, liburuak 5 atal eta eranskin bi ditu. Atalok, Etno-ipuina eta esaundak bersino bietan; Hiztegia eta esapideak; Aurkibide tematiko zenbakitua; Berriemaileak eta Bibliografia dira. Eranskinak, Etno-ipuina eta esaunda guztien gaztelarazko laburpena eta Zeberioko euskerearen azterketaren ingurukoak dira.

Gontzal Mendibilek "Gorbeiak Haizea" abestia kantau ondoren, Etxebarriak liburu bana emon eutsan 15 informante edo haren ordezkariak, euren jakituria errekonozidu eta eskertuz.

AKKB

Urtea amaituteko hiru jarduera

Erredakzioa

Areatzako Kirol Kultur Batzordeak hiru jarduera prestatu ditu urteari amaiera emoteko. Mendi urtekerera bi, bata abenduaren 11n eta bestea 31n, eta Bilboko Euskalduna jauregiara urtekerera hilaren 19an, musika zikloa zarratuteko.

Lamino Mendi Klubak eta Guraso Elkarteak Urkiolatik mendi ibilaldia antolatu dabe hilaren 11rako. "Familian egiteko plan ederra da" dinoe antolatzaileak. Goizeko 09:00etan urtenda, ibilbide bi egiteko aukera izango dabe partaideak. Ibilbide laburra aukeratuten dabenak Urkiolamendira igongo

dira eta luzea egin gura dabenak handik Larrano puntara be igongo dira. "Hamaiketako danak batera egingo dabe Pol Polen".

Beste urtekerera urteko azken egunean izango da. 08:00etan Ubidera joan eta Siskio eta Oketa mendietara igongo dira. Laminok, saldea, langostinoak eta txanpaina ipiniko dauz.

Euskalduna Jauregiara

2016ko musika zikloa, Bilboko Euskalduna Jauregian zarratuteko dabe hilaren 19an Bilboko Udal Musikaren kontzertuagaz. Kontzertua 20:00etan izango da eta bertara joateko autobusa, 18:30ean urten go da Areatzatik.

LEMOAKO GAZTETXEA

Txatxamurke abenduaren 10ean

Erredakzioa

Lemoako Karabie Gaztetxean Txatxamurke Eguna ospatuko dabe hilaren 10ean. Horretarako egun osoko egitaraua prestatu dabe.

Bola Txapelketeagaz hasiko dabe eguna 11:00etan San Inazioako bolalekuan. Ordu bi t'erdietan, bazkaria; 20:30ean kalejira "errei-

bindikatiboa" gaztetxetik hasita, eta 22:00etan, Bonistrack Zornotzako taldearen kontzertua Gaztetxean.

Txatxamurkeren helburua ondo pasetea besterik ez da. "Lehen Lemoa Tudai zana, gaur Txatxamurke da, gaztetxean dagoan talde bat. Helburua ondo pasetea da, gauza diferentek egitea" azaldu deutso BEGURI Gaztetxeko kide batek.

DUNBA

Patxi Vidal: "Marrazoakaz uger egiten dodan moduan, ez nintzake lehoiakaz egongo"

Arteko eskolako 2. zikloko ikasleak

Patxi Vidal, Otxandioko eskolako irakaslea eta urpekaria da. Gu, Arteko eskolako 2. ziklokoak, itsas bizitza proiektua landuten gabizanez, urri bigarrenaren 18an, eskolara konbidau genduan eta alkarizketa bat egin geuntsan.

Zein lekutara joan zara buzeetan?

Euskal Herrian Mutrikun eta Bermeon, Ondarrun ez naz ibili.

Mundu guztitik ibili zara?

Ez, mundua oso zabala da. Mutrikun hasi nintzan. Mutrikutik Itsaso Gorrira joan ginan, han kolore asko, arrain asko eta argitasun asko egoan. Beste bizitza

bat dago. Gero, Hokkaidotik Balira joan ginan.

Zein izan da zure arrainik gustukoena?



Nire arrainik gustukoena igel arraina da, txikerrak diranean kolore asko izaten ditue eta gero aldatzen dira. Adibidez, aingeru arraina edo enperadore arraina zoragarriak dira.

Zein izan da ikusi dozun arrainik handiena eta txikerrena?

Marrazo balea da ikusi dodan handiena eta handienak Galapagoetan topetan dira. Garagarrietik urri lehenengora, Mexikoko kostaldera joaten dira atunen arrautzak jatera.

Inoz ikusi dozu manta arraina?

Bai, ikusi neban manta arrain bat. Balin ikusi neban lehenengoa eta Getarian "pez luna" edo "mola mola" arrainak dagoz. Manta arrainak, marrazoai parasitoak kentzean deutsez, baina beste arrain txiki batzuek manta arrainari kentzen deutsez.

Zelan deitzean da ikusi dozun arrainik arraroena?

Arrain arraro asko dagoz. Udan, Galizan eta Mexikon egon naz, han arrain gitxi eta krustazeo asko ikusi dodaz. Kolore asko dago.

Inoz ikusi dozu kaxaloterik?

Ez, inoz ez dot kaxaloterik ikusi, baina ikusi gurako neuke. Azores uhartean eta Dominikan dagoz.

Zergaitik urrintzen dira marrazoak zugiandik?

Batzuk etorten dira, ikusi eta joan. Batzuetan ez badakie zer garan, haginka egin eta konturatzen diranean zer garan, soltau egiten dira. Gu, urpekariak, ez gara ibiltzen arin itsasoan.

Nora joaten zara marrazoak ikustera?

Gure kostaldean be marrazoak dagoz. Hona marrazo peregrinoak datoz. Marrazo peregrinoa marrazo balearen familikoa da

eta planktona eta krilla jaten dau. Marrazo peregrinoaren arrautzeari momatxa deitzean jako.

Inoz ikusi dozu orkarik?

Ez, ez dot inoz ikusi. Baina bale bat bai, eta txalupatik gertu. Orka izurdearen familiakoa da.

Zenbat marrazo ikusi dozuz?

Asko. Ez dakit, ehun baino gehiago. Agian berrehun bat. Adibidez, Bahametan 30 ordu marrazoz inguratuta egon nintzan, dana zan marrazo.

Zer gura dozu ikusi Mexikon?

Mexikon krokodiloak dagoz. Munduko animalarik handienak ikusteko lekuri onena da, Galapagoak baino hobea. Mexiko zoragarria da. Kuba eta Australia be krokodiloak ikusteko leku onak dira.



AGENDEA

ABENDUAK 1
AREATZA

19:00etan, aurrekontuetarako Batzar Orokorra.

ARRATIA

Arratiako Gaztelekuaren arteko I. Topaketan izena emoteko epea hilaren 7ra arte. Izena herriko Gaztelekuaren emon.

Urtailearen 3an Donostian egingo diran Negulekueetan izena emoteko epea abenduaren 15era arte. 12tik 16 urtera arteko gazteentzat. Igorreko Kultur Etxean edo Bedia, Dima eta Lemoako Gaztelekuetan emon behar da izena.

ARTEA

Udal batzordea. Aurrekontu proposamena.

17:00etatik 18:00etara, Azoka solidariorako gauzak batuko ditue OEEkoak Kultur Etxeko goiko pisuan.

IGORRE

Abenduaren 18ra arte, ikus-artearen erakusketa ibiltaria. Kultur Etxeko Erakusketa Aretoa.

20:00etan, zine kluba *Arrau the world*.

Hilaren 15era arte, abenduaren 29an Gabonetako Umeen Parkera joateko izena emoteko epea. maratu.igorre@gmail.com helbidean edo 688 898 765 telefonora deituta.

ZEANURI

17:00etatik 18:30era, abenduaren 18ko Piritx Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizunerako sarrerak salgai udaletxean Zeanurikoentzat.

08:30etik 14:30era, 28ra arte, hilaren 30eko Benito Lertxundiren kontzerturako sarrerak salgai udaletxean. Leku honeetan 22ra arte. Areatzan, The Quiet Comer-en; Artea, Herriko Bentan; Igorren, Gau Loran; Dimako udaletxean; Ubideko Herriko Tabeman; Lemoako udaletxean eta Zeanurin, Txoko Sagaman, Jubiladuen tabeman, frontoiko tabeman eta Batzokian.

ABENDUAK 2

ARANTZAZU

17:30ean, *La vida empieza hoy* bideoforuma Kulturgunean.

18:30ean, *Katillukadak* txobongilo antzerkia frontoian.

AREATZA

Euskerearen Eguna. Eskolako aterpean. 16:45ean, merienda eta tailerrak; 18:00etan, bertsoak;

18:15ean, Areatza Ueman sartu danaren barri emotea; 18:15ean zunba familiarra.

ARTEA

17:00etan, Cuidar cuidándonos tailerra Kultur Etxean.

19:00etatik 20:30era, Azoka solidariorako gauzak batuko ditue OEEkoak Kultur Etxeko goiko pisuan.

BEDIA

17:00etan, Euskerearen Eguneko umeentzako tailerrak ludotekan.

DIMA

19:30ean konzentrazinoa, "Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxean gure doguz!". Plazan.

IGORRE

20:00etan, Xabier Lizaso eta Andoni Egaña *Bi arreba*.

LEMOA

20:00etan, euskeraz jantzatu, abestu, musika jo, gozatu, bizi gura dot. Abetako plazatik.

ZEANURI

17:00etatik 18:30era, Piritx Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizunerako sarrerak salgai udaletxean.

Euskerearen Eguna. 19:30ean Iñaki Lasa kontu kontalaria Txoko Sagaman; 21:00etan, Olatz eta

Ohoreari, aberri sentimentuai,
ausardiari eta matxismoari kritikea
Yllana Producciones-en antzerkian

Yllana konpainiak *iMuu! 2* antzetzuko dau abenduaren 4an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoa.

iMuu! 2 taumakiarri egindako satirea da. Zezenketa munduan da-goañ ohoreari, ausardiari, aberri sentimentuai, matxismoari eta festa nazionalari kritikea egiten deutsee Yllanakoak *iMuu!* antzezanetan. Lehenengoa orain dala 20 urte egin eben, baina taumakia munduan gauzak gitxi aldatu dirala ikusita, bigarrena sortu eta gaia barriz landutea ebatzi dabe. Ez da lehenengo aldia umorezko antzerkia egiten dauan konpainia hau Igorrerako datorrena. *Chefs* lana aurkeztu eben aurrekoan eta arrakasta handia lortu.

Estiren kontzertua Jubiladuen tabeman.

ZEBERIO

18:30ean, Jone Gurrearen berbaldia, "Gizarte erantzunkide baten alde aurrera egingez" udaletxean.

ABENDUAK 3

ARTEA

12:00etatik 13:00etara, Azoka solidariorako gauzak batuko ditue OEEkoak Kultur Etxeko goiko solairuan.

DIMA

Udime Eguna. Ikusi egitaraua 8. orrialdean.

IGORRE

08:30ean, San Kristobaleko XIV. Mendi Martxea.

Euskerearen Eguna. 11:00etan, kalejirea Eingo taldeagaz; 11:30etik 12:30era, umeen jolasak Kultur Etxean; 12:30ean, berbalagunai omenaldia; 13:00etan, kopautxoa.

ZEBERIO

Euskerearen Eguna. 11:00etan, bizikleta martxea; 12:00etan, umeentzako jolasak frontoian; 13:00etan, taloak; 14:00etan, puxikak aireratu.

ABENDUAK 4

ZEBERIO

09:00etan, ibilaldia Artzubiko iturriko trokatik eta Ostolako errekatik.

20:00etan, zinea *Ander* Eskola zaharrean.

ABENDUAK 5

LEMOA

JB Eguzkitza Meabe eskoleak antolatuta Euskerearen Eguna ospatuteko ekintzak: jantzak, abestiak..

ABENDUAK 6

ARTEA

12:00etan, herri sarreran, Areatzatik Artearako noranzkoan, jai "arrotzen" kontrako mural pintaketea.

IGORRE

10:00etan hasita laneguna Kiñu Gaztelekuetan,

ABENDUAK 7

AREATZA

09:00etatik 11:00etara, Lanbideren puntu mobikorra herriko plazan.

BEDIA

18:30ean, Gabon Txartelen Lehiaketako sari banaketea liburutegian. Hilaren 16ra arte, 16:30-19:30, parte hartu dabenen erakusketea liburutegian.

DIMA

16:30etik 18:30era, Lanbideren puntu mobikorra.

ABENDUAK 8

IGORRE

10:00etan hasita laneguna Kiñu Gaztelekuetan,

LEMOA

Ganzabalegaz 11ra arte, Pirinioetara urtekerea.

ABENDUAK 9

LEMOA

17:00etatik 21:00etara, Azoka solidariorako gauzak batuko ditue OEEkoak Gaztelekuetan.

ABENDUAK 10

AREATZA

20:00etan, Juan Iñaki, abeslari eta perkusionistaren emonaldia The Quiet Comer-en.

BEDIA

17:00etan, Arratiako Gaztelekuaren arteko I. Topaketak.

IGORRE

10:00etan hasita laneguna Kiñu Gaztelekuetan,

Jubiladuen urteroko bazkaria.

Igorreko Ziklo-krosa. 18:00etan, erakusketearen inaugurazinoa; 18:30ean, berbaldia Daniele Pontoni, Mario de Clerq eta Jose Mari Yurrebasogaz; 19:00etan, pelikulea *Igorre 40 urte Ziklokrosean*. Kultur Etxean.

22:00etan, zinea *Que Dios nos perdona*. Lasarte Aretoa.

LEMOA

11:00etatik 13:00etara, Azoka solidariorako gauzak batuko ditue OEEkoak Gaztelekuetan.

Harmketarrak-ek antolatuta, Txabamurke Eguna. 11:00etan, Bola Txapelketea San Inazioan; 14:30ean

bazkaria; 18:30ean kalejira errebindikatiboa Gaztelekuetan; 20:00etan, Bonistrack-en kontzertua.

ABENDUAK 11

AREATZA

09:00etan, Lamino Kirol Klubak eta Areatzako Guraso Elkarrekin antolatuta, urtekerea Urkiolara. Ibilbide laburra Urkiolamendira, luzea Larranora.

IGORRE

Igorreko Ziklo-krosa. Ikusi 11. orrialdea.

17:00etan, zinea *Ozzy*; 19:30ean, zinea *Que Dios nos perdona*. Lasarte Aretoa.

ABENDUAK 12

BEDIA

19:00etan, Erregeen kabalagan parte hartzeako batzarra eskolatan.

DIMA

16:30etik 18:30era, Azoka solidariorako gauzak batuko ditue OEEkoak Informazio bulegoan.

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, Azoka solidariorako gauzak batuko ditue OEEkoak Kiñu Gaztelekuetan.

ABENDUAK 13

AREATZA

19:00etan, aurrekontuen zimborroaren aurkezpena udaletxean.

ARTEA

Aurrekontuak onartu.

ABENDUAK 14

IGORRE

19:00etan, euskerearen amasgunen tailerra Kultur Etxean.

ABENDUAK 15

IGORRE

18:00etan, Bizi (Igorre adinakoakaz adeitsuago izateko programea) proiektuaren 5. saioa Kultur Etxean.

19:30ean, Alex Txikon, Ali Sadpara eta Simone Mororen berbaldia "Neguko lehen igoera. Nanga Parbat 8.126 m.". Lasarte Aretoa.

LEMOA

18:00etan, XI. Haurrentzako Marrakzi Lehiaketaren sari banaketea. Ludotekan.

ZEANURI

18:00etan, Gizonen Gunea, "Gizonen parte hartzea bardintasunaren bidean". Kultur Etxean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

KIROL MAKINEA SALGAI

BH Fitness Quick Easy Eliptic kirol makinea salgai. Telefonoa: 615 783 915.

KIROL MAKINEA SALGAI

Bizikleta estatikoa salgai. BH Fitness, Sprint Bike Three. Telefonoa: 649 979 115.

SALGAI

Hamar ardi eta aharitua (latxa errazakoak). Gura izan ezker, Undurruga auzunean, hektarea bateko larrea eta txabolea be itxiko jako erosleari, garbitzearen truke. Telefonoa: 653 745 838 (Gotzon).

DANERIK

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

LAN BILA

Etxe garbiketarako eta plantxa egiten dodaz. Kotxeduna. Interesatuak deitu 658 591 307 telefonora.

LAN BILA

Etxe barruko behargin moduan lan bila dabilen neska bat naz. Persona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiten dodaz. Deitu 622 197 909 telefonora.

IGORREN BERBALAGUN BILA

Astean ordubete euskeraz berba egiteko aukerea! Ikasten dagozanak lagundu gura badozuz edo euskeraz errezatasuna lortu, deitu 688 802 373 telefonora edo mezua bialdu euskera@igorre.net helbidera.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Bi arreba* ikuskizunerako.

Aitziber Milikua (Areatza)
Igor Estankona (Artea)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Muu! 2* antzezanerako.

Peli Aldape (Igorre)
Ziortza Etxebarria (Zeanuri)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Igarle. 2.- Bat erromatar. Lerroa.
3.- Artzain txabola. Zidarra. 4.- Bizkaiko
ibaia. Insektu hegalaria bat.
5.- Germanioa. Birritan, umeen
berbetan, ibili. 6.- Arakatu. Erdiko
bokala. 7.- Letra bat. Musika nota.
Irdioa. 8.- Edabe garbi. Gresa
temperatura bajutan eta arin erreteko
prozedura da. 9.- Borondate.

GOITIK BEHERA

1.- Min daukagunean dinogu.
Ondasun. 2.- Sufrea. Makur. Nora
atzizkia. 3.- Hamar bider ehun.
Galdera aurretik. Letra mutua.
4.- Edo. Portale. 5.- Galioa.
Gomendio. Amerizioa.
6.- Andrazkoen izena. Aldats.
7.- Alperkeria. Gipuzkoako udallerria.



Topau Ozeaniako zazpi herrialderen izenak.

A	U	S	E	M	A	L	T	A	R
B	R	I	A	L	T	A	O	G	A
E	I	K	E	M	U	R	N	O	P
D	Z	O	M	A	O	G	G	L	L
I	K	A	I	N	U	A	A	K	A
Z	O	R	C	I	P	E	R	I	N
U	B	E	R	S	O	A	L	A	P
H	O	L	O	A	M	A	U	T	E
I	R	E	N	T	R	U	K	E	L
G	A	Z	E	T	A	L	E	Ñ	O
A	S	E	S	I	F	I	Y	I	N
L	E	U	I	G	E	B	E	M	U
T	A	R	A	N	U	K	O	A	N
U	R	T	U	R	A	L	U	J	I
Z	O	K	E	M	O	G	I	P	A

AKIKI KO

I
m
a
n
O
l
a
t
u



umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten
dogu. Bixarra egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behe IGORRE

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behe IGORRE
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ZUZENBIDE
ABOKATUAK;
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
ASEGURUAK;
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
AHOLKULARITZA;
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behe IGORRE (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: uruzulu@arratia.net

IRANTZU LEKUE

"Artibismoa landuten dot, parte hartzea eta hezkuntza sustatuz eta bidebakokeriak salatzen dituen artelanak garatuz"

Irantzu Lekue artisteak, bere andra ikuspuntutik, arte kontzeptuala eta artibismoa lantzean ditu.

Ubiden bizi eta sortzean dau, Madriletik aitaren etxera etorri zalako lasaitasun bila. Arte konprometidua egiten dau, injustiziak salatuten dabezan muralak, instalazioak eta eskulturak, hain zuzen be.

Hainbat proiektutan murgilduta dago, baina ez dau baztertzen bere lana Arratian erakustea.

Erredakzioa

Ez zara ubideztarra. Nozdik eta zergaitik bizi zara Ubiden?

Gasteizen jaiotza nintzan baina aita Ubidekoa zan, baita aita be. Orain dala urte bi, Madrilen nengoanean, zarata, abiadura eta uri handien zoramenera aurre egiteko Ubidera etorri gura nebala pentsau neban. Pentsau eta egin. Ubidera bueltau nintzan, lasaitasun bila. Hasieran tailer moduan erabili neban etxea. Gaur egun ordea, bertan biziteko edota lasaitzeko momentuak bilatzeko. Margolaritza landuten dot Ubiden bereziki baina etxean isolatzea gustetan jata herriko isiltasunak sortuten lagunduten deustalako.

Hasieran aho bete hortz gertzen nintzan etxe ondoko kaminitik pasetan zan kotxe batek edo kaleko txakur batek esnatzen ninduala ohartzean. Ubideko lasaitasuna maite dot. Madrilen milaka kotxe pasetan ziran etxe aurretik egunero eta orain barriz, kotxe edo txakur batek esnatzen nau. Aldaketa ederra! Ubide da

egun nire sormen zentroa. Lasaitu eta sortu egiten dodan tokia.

Inguruak, Ubidek berak, aporetan deus ezer?

Bai, zelan ez! Lasaitasuna, hausnartzeko momentuak, naturea-gazko hartu-emonak. Lan handia daukat azken hilabeteotan, eta horregaitik akaso, Ubidera ailegau, beheko sua biztu eta lasaitzeak emoten deustana ezin da ezegaz pagau!

Arte konprometidua egiten dozu, zein helburugaz? Uste dozu arteak injustiziak burrukatzeko balio dauala?

Eragin soziala gauzatzeko, errealdarearen inguruan hausnartu eta nire ekarpena egiteko, jentarte hobetuteko eta bidebakokeriak salatuteko garatzen dodaz artelanak. Diziiplina ugaritako fusinoak landuten dot, teknika gaiari lotuz eta ikusleak parte hartzaile bihurtuz mezua zabaldu eta indartzeko.

Adibidez, Gasteizen Martxoak 3 Memorialaren barruan, eskultura batez islatu neban 1976. urtean andrak egin ebezan greba eta manifestazioak. #6000zpt

ekimenean, Marotoren errazimozaren kontra eta alkarbizitzaren aldeko 7000 zapatakaz osotutako instalazio artistikoa egin neban. Zapata bakotzak kolore bat, neurri bat, izakera eta kultura desberdinak azaltzen ditualako erabili nebazan, zapatak personeren metafora lez.

Hainbat sari jaso dozuz, tartean, Welcome Donostia Saria, Siriako errefujiaduen gaineko obra bategaitik. Azaldu apur bat obra hau eta saria bera.

Welcome Donostia Saria, Siriako errefujiaduen egoeraren gainean berba egiten eben lanak aurkezteko deialdia luzatu eban uda aurretik. Lehiaketa horretara "Desengaño" eskultorea aurkeztu neban. Bost atez osotutako eskultorea zan, Siriako errefujiaduak Europara ailegetako zeharkatu behar dituen oztopoak isladatuz.

Eskultorea alde bietatik ikusi daiteke eta ikuslearen parte hartzea bilatzen dau. Ate bakotxean heziak, Siriako urien suntsitzeak edo Siriatic Europara bidean errefujiaduak jasan dabezan eskubi-deen bortzaketen irudi gardenkiak gainezarriz.

Alde batetik begiratu ezkerreko, errefujiaduen egoera Europatik ikustarazo daiteke, irudiak distorsionatuz gure begiratzeko era eroso eta pasiboaren menpe egokitutako begiradea irudikatuz. Bestetik, Siriako errefujiaduen ikuspuntua isladatzen da. Suffrimentua, bide luzea, zailtasunak, bizipen gogorak... Europara ailegetako nahia, eta seguru asko ailegauko ez dana.

Lehenengo hautaketan, 25 obra aukeratu ziran, nirea barne eta erakusketa bat egin zan Hernaniko Orona Ideo eraikin barri eta originalean. Azkenean "Desengaño" eskulturreak epaimahaiaren lehenengo saria jaso eban.

Uste dozu artisteak eginkizun etikoa daukala tokau jakon sasoi eta gizarteagaz? Gauzak aldatuten lagundu ahal daua arteak?

Bai. Eginkizun etikoa daukagu bai sasoi eta bai gizarteagaz. Arteak jentartearen inguru guztietan lagundu daike, barrikuntzea sustatzen daualako, ikuspuntu barriak zabaltzen ditualako. Eta ez badau



sustatuten, sustatu behar dau. Sorkuntzak gauzak barrizteko, hausnartzeko, salatze gaitasuna dauka eta artistok lan egin behar dogu gure ingurua hobetzen, ondo ez dagozan gauzak zalantzan ipinten eta hausnartekak garatzen.

Arteak gauzak aldatzeko elementua izan behar dau. Pentsakerak zabalduko balio dau, baina aldaketa sustatzeko, pentsau eta ulertzeko borondatea funtsezkoa da.

Ze mota edota estilotakoa da zure lan plastikoa?

Artibismoa landuten dot, parte hartzea eta hezkuntza sustatuz eta bidebakokeriak salatzen dituen artelanak garatuz. Arteak buruak zabaltzeko gaitasuna daukanez, interbentzio publikoen bitartez, hausnartzeko lanak interesatzen jataz.

Arte arloaren teknikak fusioetan dodaz. Instalazio artistikoa, eskulturak, bideoarte, margoak garatzen dodaz gaiari lotuz barrizteko erak bultzatu guran, abangoardistak arteak barriztatu ebezan teknika barriak erabilia. Gaur egun, teknologia barrien jentartearen, arteak barriztatzeko gaitasuna landu behar dau, abangoardietan legez, gauzak aldatu gura badoguz. Era berean, muralismoan murgilduta nabil. Frontoietan, etxeetan, baserrietan, udaletxeetan, harrasketan... Azken urte honetan Tolosan, Iurretan, Maetzun edo Egilaten egin dodaz muralak. Artea kaleratzeko

era perfektua da.

Zeintzuk dira momentu honetan esku artean daukazuzan proiektuak?

Muralez gainera, Donostia 2016 eta Wroclaw 2016 kultur uriburuak alkatzen ebazan Abeldideak proiektuan sartuta egon naz, beste proiektu batzuk garatu bitartean.

Atzo (zemendiak 22) jakin nebanez, Eusko Jaurlaritzak nire "AusARTu! Emakumeak gatazkan" proiektua aukeratu dau Ikertu deialdiaren barruan, 2017an zehar aurrera eroateko eta abenduan zehar proiektu sano handia gauzatu behar dot DSS2016 Kultur Hiriburuaritxierea emoteko.

Era berean, alkarbizitzaren aldeko hiru instalazio artistiko garatuko dodaz kursoan zehar Gasteizen. Lehenengo, urri bigarren gauzatu genduan kultur aniztasunari buruzko "Nahasis hazi" performance-agaz. Datorren urtean, aniztasun funtzionala eta alkarbizitza defendiduko daben parte hartzeako instalazioak garatuko dodaz.

Bestetik, erakusketa areto eta diseinuak eta proiektuak sortzeako tailerra erreformetan nabil. Urtaierako martxan ipintea gustauko litxakit. Abenduaren 4an, Durangoko Azokan berbaldia daukat Gogoetaren Plazan eta kulturaren inguruan pentsetan eta hausnartzeko nago.

Bilbon eta Madrilen be, beste proiektu batzuetan murgilduta nago. Topera egia esan.

Arratiako beste artistakaz hartu-emonik badaukazu?

Arratiako artista askorik ez dot ezetuten. Urte hasieran, Murgiako Udalak sustatutako Emakume sortzaileen berbaldi baten, Euskal zeramika museoaren arduraduna, Blanka Gomez de Segura ezagutzeko aukerea izan neban. Gogo itzela daukat Arratian zeozer egiteko nire zuztarrak be hemengoak diralako eta, azken batez, hau dalako nire inspirazio gunea. Ez dakit mural bat izan daiteken, erakusketa bat... baina zeozer egiteko gogoz nago, bai horixe. Orintxe bertan ezin dot, agenda leporaino dodalako baina, udabarritik aurrera izan daiteke. Arratia, Durangaldean egin dogun lez, artez blaitu daikegulako.

lemoako udala SARE SOZIALETAN



Lemoa



lemoatzen.lemoa.eus komunikazioa eta parte-hartzea



Udal aplikazioa Android eta iOS



Facebook



@lemoakoudala Twitter



674 33 74 65 zenbakira "Informazioa jaso nahi dut" mezua bidali Udaleko kultura ekintzen gaineko informazioa Whatsapp bidez jasotzeko



www.lemoa.net Internet